



## UNIBERTSITATEZ KANPOKO HEZKUNTZA PUBLIKOKO SPRL.

### LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIORAKO NEURRIAK EAEKO IKASTETXEETAN, COVID 19REKIKO ESPOSIZIO-ARRISKUA DELA-ETA .

#### 2021/22 IKASTURTEA, UNIBERTSITATEZ KANPOKO HEZKUNTZA.

Hezkuntza oinarrizko eskubidea da, eta Hezkuntza Sailaren asmoa da hezkuntza-helburu gisa presentzia-agertoki bati eustea.

Ikastetxeek lan-ingurune segurua izan behar dute langile guztiarentzat, eta hezkuntza-ingurune segurua ikasleentzat. Horregatik, aurreko ikasturtean oso eraginkorrak izan ziren neurriekin jarraitu ahal izateko estrategiarekin jarraitu behar da.

Ikastetxeetako agerraldiak oso txikiak izan dira, beste ingurune batzuetakoak baino askoz ere txikiagoak, hala nola erkidegokoak eta familiakoak. Egiaztatu dugu prebentzio-neurriak eraginkorrak izan direla eta kasuen jarraipenak eta horien kutsatze-datuek erakutsi digute hezkuntza-ingurunean kutsatze horiek oso urriak izan direla; beraz, ondoriozta daiteke planteatutako neurriek arrakasta izan dutela unibertsitatez kanpoko eskola-ingurunean.

Une honetan, egia da frogatuta dagoela aerosol bidezko transmisioa, eta Covid 19 aldaerak daudela, transmitigarritasun handiagoarekin. Egia da, halaber, langile gehienek txertoa hartu ahal izan dutela eta 12 urtetik gorako ikasleak txertatuta egon daitezkeela ikasturteko lehen hiruhilekoan.

Zirkunstantzia horiek eta COVID 19 bidezko gaixotasunaren ezagutza handiagoa direla eta, beharrezkoa da prebentzioko, higieneko eta osasunaren sustapeneko funtsezko neurriak hartzen jarraitzea, aurreko ikasturtean ikastetxeetan hezkuntza-jarduera presentziala mantentzea ahalbidetu zigutenak eta eraginkorrak direla erakutsi dutenak.

Hezkuntza-komunitate osoak jarraitu behar ditu neurri horiek, jarraibideei, argibideei eta antolaketa-aldaketei jarraiki, eta ikasturte hasierako une honetan planteatzen diren egoera berrietara egokituta.

Hezkuntza Sailak beste arau batzuk eman ditu 2021/22 ikasturterako Protokolo Orokorrean.



## **Aurreko ikasturteko dokumentuaren helburuek indarrean jarraitzen dute:**

- 1.- Ikastetxeak osasuntsu eta seguru mantentzea, hezkuntza-etapa bakoitzari eta gure lan-eremuari egokitutako prebentzio-neurrien bidez, eskola-bizitzaren lanpostu, jarduera eta garapen bakoitzari egokituta.
- 2.- Kasuak garaiz detektatzeko aukera ematea, kutsatzeak ahalik eta gehien mugatzeko eta oraindik indarrean dagoen pandemiaren tratamendua eta kontrola errazteko.
- 3.- Ikastetxeen kontingentzia-planekin jarraitzeko erraztasunak ematea. Bereziki aipatu behar dugu jarraitu behar dugula kontaktuak mugatzen, prebentzio pertsonaleko neurriak hartzen eta garbiketa eta desinfekzioa egiten.

Prebentzio-zerbitzutik **nabarmendu nahi dugu osasunerako informazioa eta prestakuntza eman behar zaiola hezkuntza-komunitate osoari**; izan ere, argi geratu da hezkuntza-eremutik kanpo portaera pertsonalak ez direla hain zorrotzak, arrisku handiagoa dakartela eta beti behar bezala barneratu behar direla.

Ikastaro honetako funtsezko beste helburu bat gehitu nahi dugu:

- 4.- Pandemiaren presagatik aurreko ikasturteetan mugatu den laneko arriskuen prebentzioko jarduera orokorrera itzultzea.

**Aurreko ikasturtean zehaztu genituen prebentzioaren, higienearen eta osasunaren sustapenaren oinarriko printzipioek indarrean jarraitzen dute, Hezkuntza Sailburuordetzaren ikasturte honetarako protokolo orokorrean adierazitako dimentsioekin.**

SPRLren dokumentuetan proposatutako neurrien gomendio guztiak ikastetxeetan inplementatuta jarraituko dute, eta indarrean jarraituko dute une desberdinetako egoerak eta egin beharreko jarduerak jasoko dituzten kontingentzia-planak egiteko beharrak.

Lantalde bat mantentzen da ikastetxe bakoitzean, COVID 19ko arduradun batekin.

Langileen artean indarrean jarraitzen du prebentzio-neurri guztiak betetzeko derrigortasunak, baita maskara kirurgikoen erabilera ere, salbu eta maskara erabili ezin duten, distantziak gorde ezin dituzten, edo sentsibilitate berezia duten langileen kasuan, patologia jakin batzuegatik edo haurdunaldiagatik. Azken horiek SPRLk FFP2 maskara iragazleak erabiltzeko emandako jarraibideak beteko dituzte.



Etxean tenperatura eta sintomak kontrolatzeko sistematikari jarraitzen dio. Gainera, ikastetxeetan sintomak dituzten pertsonen kasuan jarduteko protokoloak indarrean jarraitzen du.

Aireztapenari dagokionez, espazio itxi guztietan aireztapen natural sarria eta gurutzatua lehenetsiko da.

Hasiera batean, eta salbuespenezko kasuetan izan ezik, ikastetxeek ez dute CO2 neurgailuen erosketa orokorra egin behar, ez eta airea iragazteko eta arazteko sistemen erosketa orokorra ere, ezta germiziden erabilera ere, ikastetxeentzat, SPRLk zehaztutako salbuespenak salbuespen.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko abuztuaren 31ean



Servicio de Prevención Riesgos Laborales  
Lan Arriskuen Prebenzio Zerbitzua

HEZKUNTZA SAIA  
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

*Amparo Betegón Hernando*

Lan-arriskuen Prebenzio Zerbitzuaren Arduraduna  
Responsable del Servicio de Prevención de Riesgos Laborales

Donostia-San Sebastián, 1 / 01010 VITORIA-GASTEIZ

945 01 84 11

a-betegon@euskadi.eus

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO